



"semeak etorkizunaren oiñarria dira"

nak be. Iñork ezin deusku kendu, ba, gure eskubideak, gureak doguzalako ta iñori zor ez deusaguzalako. Zelan ausarditzen gara, orduan, umeen eskubideak zapalduten?

Askoren eritxiz, gizasemeak dauan jaso guztia biar-egiteagandik jatorko. Biar-egin ezin dauanak eztau ezer-be balio. Agureak, andrak eta umeak, beraz, gizarteko kide ustelduak dira, sutarako baiño balio eztabenak. Baiña, eritxi au be oso gaiztoa ta okerra da. Biar-egiteak gizasemeagandik artuten dau bere jaso guztia, eta ez aldrebez. Umeak, biar-egin ezin ez arren, beste edonork beste balio dau, eta gizartean biziteko beste edonork aiña eskubide dauko.

Oroitu gaitezana, ba, azkenez, umeeri egifiko kalte ta gaiztakeri guztiak gizadiari berari egifikoak dirala, eta umeen eskubide santuenak zapalduten dituenak, bear bada gureak be zapalduteko eragozpenik izango eztabela. Bildur izan daigun, beraz, umeen arerioakgaitik.

Numero ta estadistika asko ezagututa gero, derrigorrez autortu bear dogu gaurko gizonok eztagigula bear dan moduan umeak errespetatzen. Naiko motibo doguz autoriza au egiteko.

Eta askotan txarrena izan oi da ontzat enkiten doguzala umeeri egifiko gaiztakeri guztiak: edo umeak —gure ustez— eskubi-erik eztaukezalako, edo eskubide orren oiñarria okerreko lekuan ipinten dogulako.

Edadeak ala urteak emoten ete deutsoe gizasemeari bere eskubide guztiak? Ez; urteak gizasemeari ez deutso ekarten eskubide barririk. Gizasemeak ditun eskubide guztiak bere izadian dauke euren oiñarri ta aurria. Beraz, gizon guztiok izadi bardiña daukogun ezkerro, danok ditugu eskubide bardiñak be. Guztiok: agureak, gizon anaiak, eta... umeak.

Gaiñera, izadi ori Jaungoikoak —eta ez beste iñork— emona dogu. Orregaitik, Jaungoikoaren zordunak gara bakarrik, eta ez beste iñorenak, ezta gure gurasoen zordu-

Numeroak diñoskuena:

MUNDUAN

100 milloi ume anormalak dira

600 milloi ume gosean bizi dira

Aur gaizto edo "abortu" guztietako erdiak eragiñaK dira

Numeroak Ez Diñoskuena

Zenbat ume galduten diran sortu baiño len

ANAITASUNA

IX urtea N.º 98
Dep. Legal SS. 1092-1959
Suplemento de la hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
Zezeilla (2) 1963

Formaziñua

batzuentzako bakarrik?

zer da?

Askok, geienak, formaziñuatzaz txarto pentsetan dabe. Formaziñua abadegintzara, edo mediku egitera, edo beste ofiziu famatsuen bat ikasten doazenentzat bakarrik dala pentsetan dabe. Uste orretan dagozanak txarto, txarto, txarto pentsetan dabe! Guztiz erretuta dagoz! Bai, guztiz! Formaziñua artu bear dabeenak ez dira ez abadegintzara edo mediku egitera doazenak bakarrik, ez! Formaziñua —au irakurri ondo!— “mundu onetara datozan gizon eta emakume guztiak artu bear dabe; bakoitzak bere saillean; baña, danak formatu bear dira”.

ORDUAN, ZER DA FORMAZIÑUA?

Ona amen, irakurle maiteak, formaziñuaren definiziñua: “Formaziñua da Jaungoi-

koak bakoitzari emon deuskun bokaziñua jarraitu ta beteteko bear doguzan grazi edo doaiak Jaungoikoaren laguntasunagaz eta norberaren izerdiagaz jaretea”.

Mundu onetan gizon guztiok daukogu bokaziñu espeziala; nik, franzikotar-abade izateko bokaziñua; zuk, barriz, Gernika-ko edo Bermio-ko (zeuk jakingo dozu nungua dan...) neskatxu bategaz ezkondu ta onelako edo arelako famili bat formatuteko bokaziñua; bakoitzak berea. Askotan entzun da ezkontzeko formaziñurik ez dala bear; txarto esan da! Formaziñu bakoak ezkontzara ez leuke egundo joan bear. Aitu ondo: ezkontzeko bokaziñua bear da; ezkontzeko FORMAZIÑUA bear da!

Ikusi, bada, zein dan zeure bokaziñua ta formatu ondo bokaziñua ondo beteteko.



JAKINGARRI BATZUK

Itsaso onen auzokoak garanok, nok geiago nok gitxiago, danok dakigu ta ezagututen doguz bere goraberak. Gizaldietan zear, zeresan asko emondako itsasoa da au, bai guretztat eta baita kanpokoentzat be.

Gure ur zati onen eginkizunak askok badakie, biar bada egongo da baten bat ezta kina ta orreri zeozertxu esatera noa ni orain.

Kantauri itsaso au, Atlantiko-aren zokondo zati bat baiño ezta. Zokondo au Frantzi ta Espaiñi aldeko Euskalerrian sartuta dago. "Kantauri" izena ... "bustitzen daben buratik jatorko. Antziña, Euskalerriak

ABERASTASUN BAT

Kantauri itsasoaz gagoz berbetan. Ur zati au ain txikia izan eta ain zokondotu ta baztertuta egon arren, Euskalerriko itsasondoko errientzat aberastasunaren iturri eder bat da, eta gaur iñoiz baiño geiago, bai. Len esan doguzan arriskuak euki arren, gaurko aurreratasunakaz apurtxu bat mantxotuta lez topaten da, edo obeto esateko, geuk dakigu zelan eta noiz ibilli. Olan, itsasoa bildurgarria bada beti, geu gabiltz listuago ta ariñoago, ta bildurgarritasunak galdu egiten dau.

Apur-apurka konturatu da jentea, itsa-

KANTAURI ITSASOA

"Kantauri" izena eukan eta bertako gizonak kantauritarrak lez izentatuten ziran. Ordunik geratu jakon gure itsaso oneri gaur egunean daroan izena.

Askotan ikusi izan dogun lez itsaso onen burondoak atxakaz josita dagoz, mariñelen ibillaldiak arriskugarriak egiñaz. Baiña, beste arrisku guztien artean, "galerna" izentatutako denporala da arriskugarriena. Galerna au ondo ezagutua jaku danori; derrepent eta iñok zelan ezta kila ipinten dau itsaso guztia zeruak ondatu bearrean. Oraindiño gure oroimenean argi ta bildurgarri dagoz oraintsuko galerna denporalak egin dako gauza arrigarriak.

Denporal onek, itsaso onen txikitasun eta txututasunatik datoz edo beintzat parte aundia dauke, eta baita be, bere onduagatik, ondurik aundiena 5,100 m. da.

Itsasoa garratza da, baiña bere alboan biñ diranak, aberastasun bat dauke euren eskuetan.

soak ain biar gogorra eskatuta be, gero ta obetoago ordainduten deusola mariñelari. Gaurko itsaso-arazoetako aurreratasunak izartu egin dau itsasgizona, eta gustua artzen dot esatean, gero ta geiago irebasten dau euskal mariñelak, oraindiño merezidu daben guztia estabe irebasten baiño. Gaur, Kantauri itsasoari emon leiken guztia atara eragiten jago, eta gaur lenengoz gure itsasoa txikia ta ixtua egin da euskaldun itsasgizonantzat.

Erri batzuentzako itsasoa da bere aberastasun bakarra. Egi au gero ta argiago agertuten da erri orren kontzientzietan. Lengo baten itsasoko biarra baztertua izan bada, gaur ezta olan eta danak siñestuten dabe itsasotik altsaten dan diruan.

Gaur itsasoa itxaropenez beteriko iturri bat lez ikusten dau mariñelak. Itsasoa aberatsa da danantzako, orain bakoitzak daki aberastasun orrek bereganatuten.

BIZKAI KANTARI

NEGUARI

Negu baltz ta motza, bizar zuriokaz,
¿Atorkigu leiaz kikildutera?
Zeru urdiña laño arreakaz,
¿Zertan itxi deusak arpegi ederra?


Agura zitala, arnasa otzakaz,
Ipar erriraño oa atzera;
Eure alderdian, ago ekatxokaz,
Etorri bagarik Egoi aldera.

Azalako sartu, i, gure lurrera,
Narru gorrian or, zugatz guztia;
Errekea orroez, zelai ta mendia
Pitxitxo bat bere ez dakarrela;
Itxasoa asarre, lotan Eguzkia,
Begirik zabaldu nai ez dabela.

ARITZARI

Euskaldun jayo nintzan,
Ta euskaldun azi,
Euskaraz eustalako
Amak erakutsi;
Euskara laztan maite,
Zabiltz nigaz beti,
Euskara il ezkeru
Ez dot gura bizi.

(Arrese Beitia-ren bertsoak).



ALEMANIA:

• 650.000 biergiñ kanpotar dagoz.

• Orreetatik:

262.000 Italia-tarrak

87.000 España-tarrak

69.000 Grecia-tarrak

15.000 Turkia-tarrak

Europa barrena Alemania-runtz doa, bi-
rra eske; dexente bizitzeko lan irabazteko
asmoaz. Eta? Dirua bai, baiña beste ar-
beste gauza, dirua aife bearrezkoak, ez di-
tue aurkitzen askok eta etxera begira geh-
ditzen dira, eta etorri be bai sarri.

Bear dabe, bai, laguntasuna etxeko dana
laga eta Alemania-raiño joan diran biergiñ
orreek. Askotan ez dira gauza ango "nar-
txean" ekiteko, eta baten-bateren laguntza
bear. Al dabenari auxe eskatu geunkio:
lagun deioela al dabeneraiño.

Baiña ez da naiko. Sustraitik osatu bear

BRASIL

ejenplu

eder bat

Sao Paulo
emoten asi da
artu-emonak e
Urte au apro
eskubidea izai

Brasil-eko
dira.

Txalogarr
eta baita Unit

o lekua

io geiago

Urte onetan, medikamentuen aurrerape-
nak andiak, arritzekoak, izan dira. Orregai-
tik, EE. UU.-ko zientifiko batek esan dau:
"Benetan andiak izan dira medikamentu
gauzetan egin diran aurrerapenak. Orain
arkitu bear doguna da orrentzat medika-
mentuontzat balioko daben gaisotasunak".

da aldrebestasun au. Emen osatu bear da:
danentzat bierra aukeratuaz, bizibide erre-
zago bat atonduaz.

Eta ez Gobernuak bakarrik. Danok ale-
gindu bear gara albokoaren bititza arintzen,
bata-besteari laguntzen.



Obispo bat seminario batera eldu zan.
Bertako gazteakaz berba egiten asi zan.

Alako baten, ulea bateri artzeagatik, di-
ñotso:


—Zu, bataioa edozein likidogaz emon lei-
teke, sopa-saldagaz esate baterako?

Gaztea ez da ain arin ixiltzen dana, ta
erantzuten deutso:

—Batzutan bai, ta beste batzutan ez.

—Zelan da ori?, itauntzen dutso obispuak
olako erantzuna entzuketan arrituta.

—Ba, Obispuak artzen dauan saldeagaz,
ez; seminarioan emoten deuskuganaz, bai.



Erroman, Alfonso Carinci Obispuak 27.800-
garren meza emon dauan eguna ospatu dau.
EE. UU.-an Herbert Welch, Obispo protes-
tantea, azkeneko aukeratan bere botoa emo-
teko bide luze bat oifiez egin dau.

Batak eta besteak eun urte daukeez.

adaea biergiñentzako aparteko kursoak
"Social" saillean biergin eta uesabaren
ko ditue. Ordua: gabaz eta urte baten.
enak, estudioetan aurrera jarraitzeko

errik, be, beste orrenbeste egiten asi-

errik, be, bear dau bere bizibidearen barri,
sarrera euki, buru onekoa izan ezkeru.

Bera ala gu urrin?

Sermolariak santuen bizitza goratuten saiatu arren, munduak santutasunari aburrimentuzko fama emon deutso. Amona zarraren gauza da askorentzat santutasuna. Ta pentsamentu oneek baserrietara be sartu dira. Errezatutea, atsoentzat itxiten da sarritan. Ainbat arifien amaitu ezkerro obetoago. Lurrera aibeste begiratuta itsutu egin garala esan leike. Berrezko argiak diñoskun egia da au. Gure aurrekoak atxezko fedea euken eta sarritan, txapela kenduaz, otoitz egiten saiaturen ziran solo erdian be; baiña au zartu egin dan gauza da. Trilladora ta santutasuna, baserri ederra ta otoitza, traktoira ta Jaungoikoa alkartu ezin leitekezan berbak dira.

Ta zein da gertakizun onen sustraia, egi onen benetako arrazoia?

Jaungoikoa urriñeko gauza bat dala gogoari usetea. Auxe da erantzuna. Jaungoikoari eguneroko preokupaziñuetatik uxatu egin deutsagu; kanpoko biarretatik edo etxeke beste zeregiñetatik alden du egin deutsagu. Bei bat ilten jakunean edo garia txarto datorrenean "dana dator onerako, Jaungoikoa ona da" esaten dogu. Ta esakera onek atsegin otz bat ekarten deusku; baiña Jaungoikoari geugan sentiduten useten ez garalako ez da naikua izaten gure miña epelduteko.

Jaungoikoak gure bakoitzaren preokupazioa dauko; ta bakarrik egongo bagiñan lez zainduten deusku. Soloan biar egiten dogunean geure izenagaz deitu, ikusi ta konprendiduten deusku; berak egiñak


J A U N G O I K O A S O L O A N

eta zainduak bai gara. Gure barruko bazter guztiak ezagututen dauz. Gure pentsamentu ta sentimenturik sakonenak gogoan daroaz. Gure gustu ta biurkeri guztiak ezagunak jakoz. Lagunik aundienak lez, albuau daukogu gure poz eta atseka-be guztietan. Gure buruko uleak zenbat diran eta gure gorputzaren neurria zelakoa dan ondo daki. Barrez edo negarrez egon gure argira begira dago. Ez gara naigabeetatik aldentuten, naigabe orrek berari min emoten deutson beste. Gure esku ta ankari begira dago, gure biotzaren taupadak entzun eta sentiduten daki. Ez gara malte berak maite gaituan beste.

Jaungoikoa ez dago gugardik urrin sarritan usten dogun moduan. Soloko biar edo etxeke beste egin kizun guztietan Aita jagolari on bat lez bertan daukogu. Sarritan, Jaungoikoaren bildurra daukogula esan geinke; bera barritz, Aitarik ederrera dogu. Eta au beti egiz eta edonon; baita soloan gabiltzanean be.

Pentsamentu oneek biotzari poza, kemenari indarra eta baserriari aurrerapena ekarriko deutso. Gogoan artu baserriaren aurrerapena Jaungoikoagaz bakarrik egin litzakela.





Zergaitik da zure semearen negarra?

Zergaitik negar bi edo iru asteko ume txikiak?

Problema au garrantzi bakoa irudi arren, ezkondu barrientzako korapillo mingarri bat izan leike, batez be lenengo semetxoa daukenian. Ezkondu berriak zaartxoagoak egiten diranean, ondo esagutzen dabez umezoaren negar-muxinga klase guztiak. Kontuan artu bear da, egun gitxiko umetxoaren negarrak inportantzi aundirik ezabela.

Zergaitik dago negarrez zure ume-larrosa? Goseagaitik? Indijistñua supritzen dabela? Bustita dagoalako? Belarriak min emoten dautsolako? Gaixorik egongo ete da? Loisinduta dagolako?

Ikusi dagiguzan motibu batzuk.

Umiak era deferentera egiten dau negar gosia edo beste gauza bat daukanian. Baña ezkondu barria zarean artean, baliteke ez nabaritzea gauza bat eta bestea. Gosesko negarra bada, bazkari aurretan egingo dau sarritan, eta beren gosia geroago eta geiago asten danean, jateko ordua baño aurretik egingo dau negar. Jan ordua baño GERO negar egingo dau, bular-ordua baño aurretik esnatuten danean. Baña baliteke

umetxoa jatordua baño aurretik ixartutea eta apetituagaitik negar-karraxika astea. Orduan, egiz gosea daukela badirudi ezta gauza txarra jatordua baño ordu bete aurretik bularra emotea.

Baña txupetekin oitutako umetxoak jatordua baño aurretik negar egiten dabe eta orduan janari geiago nai dabela esan nai dau.

Umetxoa janari egokia artuta ordu erdi bat gero negarrez asten bada, zeozer sufritzen dabela esan nai dau; eta jan ezpa nai badau esteetan zeozer daukola esan nai dau. Orduan kontuz ibilli. Deitu lenbaitlen medikuari.

Negar gelegi eta geratu bakoa. Batzutan gertaten da ori, obeto esateko, sarri askotan. Eskuetan egoten oitutako umetxoak iru illabete badeukoz, eta eskuetatik laga eskero, negar sendo egiten dau, ezer euki ez arren be. Eta negar aukera euki ezteizun etxean, umetxoak iru illabete gitxi gora bera beteten dabezanean, ez azkotan eskuetan euki.

Gauza oneik gogoan artzen badozuz, zure semetxoa eztitsuagoa izango jatzu. Ezet? Probau...

GURASO GAZTIENTZAT

ELEIZAREN ABOTSA

“social-problema”-ri

buruz


Askok ez dakie edo... Bai, Eleizak, ainbeste semeen sufrimentuak eraginda, joandana onetan makiña bat biderrez egin dau berba **social-problema**’ri buruz. Bere biotza erdibituta dago obrero-biargiñen egokera negargarriagaitik. Ez pentzeu Eleizea lotan dagoanik: ondo izartuta dago! Aita Santuak aspalditik konturatu dira munduan ikusten dan burruka leor onetzaz.

Gizaldi-barritze edo konpontze sakon bat bear bearrezkoa zala-ta, Kristoren Ordezkoari egokoa almenik nagusienagaz asi zan

1891’garrenean Leon XIII’garrena berbetan. Bere “RERUM NOVARUM” enziklikaren bitartez, kementsu ta argi eta garbi zabandu eban **Egia ta Justizia**, aunditxoan mar-mar bildur aundi barik.

Andik berrogei urtera, Pio XI’garrenak emon eban beste dei bat. Bere “QUADRAGESIMO ANNO” onek askori ez eutsen grazirik egin. Baiña alan da guztiz be, Eleizak, Kristok berak emon eutsan indarrak eraginda, beti zabalduten dauz **Egia ta Justizia**.

“Eleizari, erri guztien Ama ta Mai-xua Jesukristogandik jatorko bizia. Berak eskeinduten deusku bizi-bide ta salbaziñoa” (Mater et Magistra).



Pio XII’garrenak be sarritan erabili eban bere berbaldietan gai au. Eta azkene Juan XXIII’garrenak gaur bertan argitaratu dau “MATER ET MAGISTRA”. Benetan interes aundikoa da Enziklika auxe gaurko soziedadean. Aita Santuak **argia** emon deusku.

Mixeri gorrikó leizean galdu zorian aurkituten diran giza-taldearen garraak, orratxio, ondo entzun ditue Aita Santuak! Eleiza ez da, ba, izan iñoiz kapitalismoaren morroi... Eleizak, ba, beti artu dau **social-problema** au ardurarik bizienagaz, bere eskubide bat ez ezik, bere betebearrik nagusia bai izan ei da beti-ta!

Ta Eleizaren dotriña ta deia ez doguz artu bear kuriosidade bat legez bertan bera ixteko: ezpabe, ondo ausnartuta gero, gure eguneroko bizitzan ereiteko baiño. “Irakaspen nagusienak zabaldutea bete-bear sartua da”. (Juan XXIII).